



“La Grande Bellezza” filma

Film honen gidoia konplexua, sofistikatua, landua eta oso teknikoa da. Garbi dago mota honetako planteamendu zinematografiko bat egitea ez dagoela edonoren esku. Alde horretatik, film interesgarria dela uste dut eta merezi du ikustea.

Filmean zehar agertzen diren pertsonaiak era askotarikoak dira. Esaterako, badago pertsonaia zakar bat, oso latinoa, film osoa pasatzen duena “te voy a follar” esaten (“Rompetechos el facha” ekarri dit gogora, “Mortadelo y Filemón” filmekoa); egunkariko zuzendari ñaña dago, filmaren eta pertsonaien izaera katikatureskoa areagotzeko pentsatua ziur aski (konnotazio edota interpretazio gehiago bilatu ahal zaizkio); gidoilari frakasatua dago; eta sasi-artista berekoi eta goranahia; eta super larru-jotzailea; eta kokainaren sniferra; eta moja higuigarri eta miragilea; eta, batez ere, pertsonaia nagusia bera dago: handiustea, harroa, nartzisista, misogino aski nabarmena, manipulatzailea, baina... adimentsua, X izpi moduko gaitasun baten jabe dena, zeinak laguntzen baitio bere inguruan bildu duen fauna biluzten, ulertzen, gaitzesten edota barkatzen... eta bide batez, bere burua barkatzeko ere balio diona. Ea zer barkatu behar dion bere buruari? Agian, bizitza osoa pasatu izana *kalejira batean*, dantzan.

Filmean agertzen den mundua oso ondo deskriba daiteke aipatutako kalejiraren bitartez. Ez alferrik, filmeko protagonista nagusia oso harro agertzen da bere kalejiraz (“Erromako *comba*-rik onena”, dio hark berak); izan ere, dantza ergel horrek ezin hobeki sinbolizatzen du filmaren mezua; funtsean, nik uste dut filma uler daitekeela hutsaltasunaren, ezdeustasunaren aldarrikapen gisa; hau da, gauzen, gertaeren, hitzen edota bizitzaren banaltasunaren aldarrizat jo daiteke... Une jakin batean, pertsonaia nagusia oso *gizatiar* azaltzen da, hitzez jipoi ederra ematen dion lagun bati zera esaten dionean: “Esaten duzuna ez zaigu inporta, ez da beharrezkoa ez zarenaren irudia ematea, zarenagatik maite zaitugu eta”. Edo horrelako zerbait esaten dio. Baina hori guztia gertatzen da beti inguratzen zaion esperpentotik atera gabe, zeinaren parte ere baden (zer axola dute 65 urterekin egin ditzakegun asmo oneko adierazpenek? Jada beranduegi da eta).

Beharbada, banaltasun horri aurre egin diezaiokeen gauza bakarra objektu artistikoak dira. Baina, zertarako balio dute hauek baldin eta jabe, gizarte banal baten zerbitzuan badaude? Esaterako, *izugarri* baliotsuak diren artelanez josita azaltzen zaizkigun jauregi zoragarri horiek guztiak, zeinen erdian kartetan aritzen baitira –asperturik– jauregi laurogeitaka urteko jabe axolagabeak... Aldiz, edertasun harrigarri horrekiko guztiz axolagabe jokutzen ez duena... protagonista bera da (edertasunaz emozionatzeko gauza da oraindik; eta, agian, horrek salbatzen du –berataz salbatzen ez badu ere–).

Gero, filmaren bukaera aldera, ustez mirariak egiten zituen –eta bat-batean mirariak egiten hasten den– moja daukagu... Baina, nondik nora dator pertsonaia hau? Erroman gaudelako izango da, ezta? Beraz, beharturik gaude mirarietan sinestera (Erromako turismo-bulegoan txaloka hartuko zuten eszena hau, dudarik gabe). Puntu honetara iritsita, baina, filma are zakarragoa, are esperpentikoagoa bilakatzeaz gain (mojaren

aurpegi erdi momifikatuak amesgaiztoak eragiten ditu!), erabateko delirioa ere erdiesten du. Eta ez dago zertaz harritu, zeren pertsonaia nagusia, diletante porrokatua berau, eldarnio eta espejismo hutsa baita... Ea pertsonaia honek xarmarik ba ote duen? Bai... baina aldi berean higuina ere eragiten du. Nik ez nuke esango halako pertsonaia "liluragarri" bat denik, baina zerbait badu, bai...

Eta mojaren kontuari berriro ere helduz, nik uste dut moja honek errepresenta dezakeela filmeko protagonistak bere bizimodutik ihes egiteko espero duen (edo behar duen) miraria... berriro idazten hasteko, berriro gaztea izateko, ilusioa berreskuratzeko, literatura-sari garrantzitsu bat irabaztea desiratzeko: mundua jateko gogoia izan, emakumerik ederrenekin oheratu, berriz ere arrakasta eta besteen mira sentitu, ate guztiak irekita topatu... Mojak hori guztia irukaditzen duelakoan nago –miraria gauzatuko ez bada ere, zeren mirariak, tamalez... ipuin hutsak dira.

Eta amaitzeko, harira ez datorren iruzkin bat egingo dut, euskaldun bati bakar-bakarrik burura lekiokena: filmeko protagonista nagusiak... a zer-nolako antza daukan Amedo komisioarekin! Itzela da!! Horrengatik bakarrik ja hartzen zaio mania pixka bat, baina bueno... onartu beharra dago hori ez dela filmeko protagonistaren errua, gizagaixoa...